

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2024ko urtarrilaren 31reko Alkatetzaren 47. Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2024an ospatutako Zigoitiko udalerriko herrietako jaietako dirulaguntzen deialdia egin zen, norgehiagoka-prozeduraren bidez

BDNS(Identif.): 742467.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/742467>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

Lehenengoa. Erakunde onuradunak

Dirulaguntzaren onuradun izan daitezke legez eratuta eta erregistratuta dauden Zigoitia udalerriko kontzejtuak.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzaren helburua da Zigoitia udalerriko herrietako jaiak eta/edo erromeriak finantzatzen laguntzea, honako xedeekin:

- Herritarrak, herriko jaien antolakuntzan eta gozameneari parte hartzera bultzatzea.
- Aisialdiaren eta kulturaren esparruko jarduerak egiten laguntzea, bizikidetzaren aberastean laguntzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak herriko jaien arloko diru-laguntzak emateko ordenantza espezifikoan daude jasota. Ordenantza hori 2016ko apirilaren 20an onartu zen, eta 2016ko ekainaren 6ko ALHAOn argitaratu zen, 64. zenbakian.

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean izango da, aurkeztutako eskabideak alderatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 338.434.000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2025erako aurrekontuko udalerriko kontzejuen jaiegunitateko diru-laguntza gisa.

Deitutako laguntzen gehieneko zenbatekoa 20.000,00 eurokoa da. Gehieneko zenbateko osoa zenbatetsia da, eta, beraz, diru-laguntzak emateko, diru-laguntza emateko ebazpena ematen den unean kreditu egokia eta nahikoa egon behar da. 2025eko ekitaldian onartzen den aurrekontu-kreditua hasieran aurreikusitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak deialdian aplikatzea edo ez aplikatzea erabaki ahal izango du, ebazpena eman aurretik dagokion gastu-espedientea izapidetu ondoren, beste deialdirik egin beharrik gabe.

Erakunde bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa honela kalkulatu da: aurrekontu-partidaren zuzkidura zati berdinetan banatu da eskaera-kopuruaren artean, eta inola ere ezingo da diruz lagundu justifikatutako gastuaren ehuneko 100 baino gehiago.

Aurrekontu-partidan kreditu-soberakinik badago, diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoak gaitu ahal izango du partidaren zuzkidura eskaera-kopuruaren artean erdibana banatzetik ateratzen den zenbatekoa.

Hala ere, Udal honek tramitazio berezia eman ahal izango du interes bereziko programa jakin batzuetarako, baldin eta diru-laguntzen guztizko zenbaketak ez badu inola ere gaitu Zigoitiko Udalaren aurrekontu orokorreko helburu horietarako aurrekontu-aplikazioetan esleitutako zenbatekoa.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta justifikazioa, zazpigarren puntuan aipatzen den dokumentazioarekin batera, aurkezteko gehienezko epea 2024ko abenduaren 30ean amaituko da.

Seigarrena. Bestelako datuak

Eskaerarekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

— Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

— Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuen egiaztagiriak: fakturak edo kontabilitate-agiriak, froga-balioa eta baliokidea dutenak: jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutakoak.

Gastuen justifikazio modura ez dira onartuko ordainagiriak, fakturak, ticket-ak, etab., ez baitutuzte garbi adierazten ondorengo datuak:

Jaulkitzailearen izena edo izen soziala, eta NAN edo IFK zk.

Jasotzailearen izen soziala eta IFK (dirulaguntza jasotzen duen erakundearen berbera izan behar du).

Gastuaren helburua.

Data.

BEZ: aplikatutako zerga mota(k).

Programen aleak, bertan Zigoitiko Udalaren babesletza aipatuta.

Ondategin, 2024ko otsailaren 5ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA